


ANTXIÑAKO PINTTURIA



1855eko izurritia Oñatin

Aurreko hillian esaten geben moduan, XVI. gizaldixaren akaberako izurrite ikaragarriak ekarri zittuan heriotza gehixen askogatik Oñatiko herrira. Baiña harrezkero be sarritxo euki gittuan zoritxarrez, mailla apalaguan bazan be, halako gaitz bildurgarrixen ondorixuak. Horreittako bat heldu xakun Asia aldetik **1855ian: kolera morbo** lez ezautu zana, eta Euskal Herrixari nahiz penintsula osuari sakon eragin otsana.

Hara, zela zabaldu zan gure herrixan: **Frantzisko Goikoetxea** Naparruako **Olazagutiatic etorri zan Arantzazura** bere familiarekin 1855eko garagarrillaren 19ko illunkaran. Ostatuan sartu eta gaberdixan sentidu eben koleriaren erasana; bixamonian hil zan. Hurrengo egunetan beste heriotza batzuk gertatu ziran Arantzazuko beste ostatu batian eta konbentuan. Herrixan, jakiña, berihela jakin euen zelako arriskuan egozen.

Gaitza hain hurrian eukailla konturatuta, Oñatiko kontzejuak **erabagi batzuk** hartu zittuan: **errogatibak eta bederaziurrenak egittia San Rokeri eta Arantzazuko Ama Birjiñiari**; eta **Gesaltza inguruan guardiak jartia, Arantzazurako fan-etorrixak kontrolaitteko eta debeikatteko**. Baiña alperrik izan zan, nunbait; agostuaren 13an hil zan kale-aldian koleriak kutsatutako lehenengo oñatiarra.

Egoeria zihero okertu zan egun gutxiren buruan. Oñatiko medikuak eta osasun-langilliak gaiñezka ebitzelako, beste medikuren bat nunbaiten billaketia pentsau eben udalak. **Majo pagauta karriau euen sendagille bat hona**. Erremedixuen artian azufrez eta beste produktu batzuekaz igurtzitako abarrekin erreturak egitten zittuain bazter guztietan. Hala eta guztiz be, etzan erreza izan izurrixa dominaittia. **Ixa 300 kutsatu egon ziran eta 162 hilddako**. Jipue galanta sasue haretan 5.000 bat bizilagun eukiko zittuan herri batentzako.

Ba, orduko desastre harekin dako zerikusixa gaurko **antxiñakuak**. Izan be, hillabete hareittako unerik larrixenetan kontzejuari bururatu xakon erre-hondatutako Arantzazu zainketan egozen exkluustratutako fraide hareiri mesede bat eskaketia: **Ama Birjiñiaren irudixa Oñatiko San Migel parrokiara jaisteko baimena**, bere omenez bederitzaurren bat egitten zan bittartian; zelabaitteko millagruaren esperantzatan-edo. Dana dala, **udalaren eta fraidien arteko negoziaziñuak etziran bape leunak izan**. Azkenian, kostata, **urrixaren 8xan ekarri zan imajiña parrokiara** eta han egon zan hillaren 18ra arte. Orduko gorabehera eta burrukatxuen xehetasunak jakin gura dittuanak jo dagixela Iñaki Zumalderen **Historia de Oñate** monografiako 643-646. orrialdeetera.

Gaurko ilustraziñua ezta fotografixia, ezta marrazkixa be, **pintturia baiño**. Neurri oso-oso haundittako kuadro bat dozue; **Pablo Uranga Diaz de Arkaia** (1861-1934) margolari gasteitzar eta bohemoiak moldautakua. Urangak 1918 aldera hillabete batzuk pasau zittuan Arantzazuko komentuan tripa-truke. Ordaiñetan tamaiña nabarmeneko hainbat kuadro pinttau zittuan fraidientzat santutegiko historixiaren gaiñian, gaur egun hango klaustruan ikusgai dagozenak.

Margo-lan honek, hain zuzen be, 1855eko Ama Birjiñiaren Oñatirako jaitsieria agerketan dosku. Pablo Urangaren estilo inpresionista, libre eta alegria dako. **Neri zera gustaitten xat batez be**: kaltzada zaharreko harri artian behera, **prozosiñuari ikusten xakon solemnidade-falta kuriosua**. Parajiak Gesaltza inguruak gogoraketan dost.

Pintturia norena eta noizkua dan esan dogu gorago. Hau bai, antxiñakua da, ehun urte pasatxo. Eskerrak Arantzazuko fraidiari eskuratu doskuen argibide batzuegatik.